

{ asteari zeharka begira } **Ramon SOLA**

27 ordu, lau hamarkada, betirako ote?

Ez naiz bereziki zinemazalea, baina pasa den asteko ostiralean bi pelikula ikustea egokitu zitzaidan. Eguerdia aldera, lanaldian, Zinemaldiko egitarauan “No me llame Ternera” izan zen lehena. Orriotan argitaratua dago kronika, lasai egon irakurle, ez zaitut berriro horrekin aspertuko. Baina kontua da gauean etxera iritsita, gauerdia aldera, uste-kabe polita hartu nuela: Espainiako telebista-kate batean “27 ordu” emititu behar zuten.

Nire belaunaldikoak guztiz txunditu gintuen filma dela uste dut. Osagai guztiak zituen: kalean egunero koan bizi genituen egoerak jaso zituen Montxo Armendarizek, batzuetan bere gordintasunean eta beste batzuetan bere goxotasunean. Gure taldeen musika entzungai genuen behin-goz: Zarama, Barricada... Euskaraz mintzo ziren protagonistak, hitz batzuk behintzat. Eta nor ez zen pantailaz beste aldetik Maitekin maitemindu (Maribel Verdu), edo Jonekin (Martxelo Rubio)...

Kuriositate handiz eseri nintzen telebistaren aurrean, beraz, eta gauzak nola aldatu diren, kamarada, egiaztatu nuen, hau ere harridura puntu batez. Donostiako hiri paisaian, hasteko: kaian aspaldi ez da arrainik saltzen, «txipiro-nerak» desagertzen joan dira, Groseko kale batzuk ezagutzeko irudiekin aurrera eta atzera ibili behar izan nintzen, Sagueseko saskibaloia pistari «kaiola» zergatik esaten zaion deskubritu nuen... Tira, 1986. urtean (ordukoa baita pelikula) oraindik ez kursaalik, ezta Zurriolako egungo hondartzarik ere, eta honekin dena esana dago.

Gizarte joeretan oraindik aldaketa sakonagoak agertu zitzaizkidan begietara: filmaren gai nagusia droga-rena da, eta zorionez heroinaren kolpe latza aspaldi gainditua du Euskal Herriak. Gatazka armatuak zipriztintzen du pelikula, hau ere iraganean utzia. Gazteen langabeziari aurre egiteko modua, trapitxeo ezberdi-

nen bidez, beste garai batekoa suertatzen da, nabarmen. Eta jakina, tabako asko dago, futbolinak ere bai, baina telefono mugikor eta bideojokorik ez.

Emisioaren aurretik Verdu elkarrizketatu zuten. Madrilgo aktoreak aitortu zuenez, filmaketa oso garrantza egin zitzaion, «inork ez ninduelako bertan zaindu»; bere amak baino ez (15 urte zituen Maribelek orduan). Gogo txarrez entzun nuen aipamena, deseroso-edo, segur aski film horren inguruko dena liluragarria egin ohi zaidalako, baina pixka bat pentsatzen hasita Verduk horrela sentitzeko, soberako arrazoiak izango zituela ondorioztatu nuen: «berunezko urte» haietan, espainiar bat inguru euskaldun batera bat-batean sartuta, gaztetxo bat helduen artean, emakumezko bat gizonezko askoren artean, dena batuta eta biderkatu-

‘27 ordu’ berriro ikustean dena goitik behera aldatu dela frogatzen bada, ‘No me llame Ternera’-n ezer ez dela aldatu sinetsaraztea bereziki lotsagarria egin zait

ta. Egoera ez zen samurragoa izango, demagun, Goierriko aktore emakume gazte batentzat Madrilan edo Sevillan garai haietan, Buñuel edo Berlanga batentzat lanean. Zorionez, hau ere zeharo aldatu da.

Hau guztia buruan bueltaka nuela, goizeko pelikulara joan zait gogo. Izan ere, Evolek Urrutikoetxeari egiten dion elkarrizketaren gako nagusia urte haietan bertan da, 80ko hamarkadaren erdialdean, ETak bomba-autoak zartarazten zituenean (eta bai, tortura eguneroko ogi zenean). Eta “27 ordu” berriz ikustean dena goitik behera aldatu dela frogatzen bada, “No me llame Ternera” lehen aldiz ikustean iragan urrutiratu hartan bizi garela sinetsarazi nahia bereziki lotsagarria egin zait. Lau hamarkadak berdin igaro baitira denean eta denontzat, batzuek “27 ordu”-tan betiko bizitzera kondenatu nahiko gintuzketen arren. •